

EBAZPENA, 2020ko ABUZTUAREN 24koa, EMAKUNDE- EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN ARABERA «ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA, EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS, IZENPE, S.A.» ERAKUNDEAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LANKIDETZA-ERAKUNDEAREN BEREIZGARRIA IZATEN JARRAITZEN DU.

Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariak, 2/1988 Legeak, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzkoak, 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak eta 214/2006 Dekretuak, Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundearen egitura organikoa eta egitekoak ezartzen dituenak, emandako ahalmenak erabilita, adierazten du:

AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2015eko abuztuaren 31ko, Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariak emandako Ebazpenaren bidez, «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundea» izaera aitortzen zaio «ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA, EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS, IZENPE, S.A.» erakundeari. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundearen aitortpena sortu zuen otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuak horretarako eskatutako baldintzak betetzen zituelako, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 41. artikuluan oinarrituta. Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen esparruan.

Bigarrena.- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundearen aitortpena arautzen duen otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuaren 14.1 artikulua dioenez, «Bi urtez behin», emandako aitortpenak indarrean jarrai dezan «lankidetzaren erakundeak emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko ekintzak gauzatzeko jarraitzen duela egiaztatzea behar du Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari. Artikulu horretan jasotzen denez «Horretarako, erakundeak jarraipen-txosten bat egin behar du aurreko urteetan abian jarritako ekintzei buruz eta horiek egoeraren diagnostikoaren adierazleetan izandako ondorioei buruz. Txostenean egiaztatzea egin behar da aldi horretako planean diseinatutako ekintzen % 70 baino gehiago gauzatu dela, baita diagnostikoan jasotako abiaburu-adierazlearen egoeran izandako aurrerabideak ere, baldintza horiek ez betetzea justifikatzen duten arrazoi objektiboak daudenean salbu».





ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Emakunde- Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari dagokio ebazpen hau ematea, Emakunde- Emakumearen Euskal Erakundearen egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 31ko 214/2006 Dekretuaren 17. artikuluan emandako eskumenen arabera (2 eta 3. artikulua).

Bigarrena.- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundearen aintzatespenari eusteko egin beharreko jarraipenari begira «ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA, EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS, IZENPE, S.A.» erakundeak bidalitako dokumentazioa aztertuta, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak uste du nahikoa dela erakundeak horretarako beharrezkoak diren lege-eskakizunak bete dituelako.

Horregatik guztiagatik, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- «ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA, EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS, IZENPE, S.A.» erakundeak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundearen bereizgarria izaten jarraitzeko beharrezkoak diren lege-eskakizunak bete dituela balioestea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abuztuak 24.

MIREN IZASKUN LANDAIDA LARIZGOITIA,
Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria.